

# Latitudea

Xabier Artola Zubillaga

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
1997



Zumaiaiko Udala

*enskar  
txanpau*



# Latitudea

Xabier Artola Zubillaga

Julene Azpeitia 10. ipuin lehiaketa

1997

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Artola Zubillaga (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

-|-

Esposizio idealak sujetaren alderik ilunenaren itzalak doi ikusten ahal den dentsitate bihurtzen dizkigu negatiboan. Esposizio luzeago batek, berriz, zer dentsoago bat emango digu pelikulan, alderik ilunenean ezer ere ikusten ez dela. Esposizio-latitudeak, zein pelikula eta sujetaren mendeko baita, zedarrantzen du esposizio erabilgarrion nondik norainokoa.

Diapositiba-pelikularekin lan egiten denean kontu egin behar zaio latitudeari, pelikula positiboak ondotoz latitude murriztagoa baitu negatiboak baino. Beraz, kontraste handiko eszenak argazkiratu nahi direlarik, argiaren neurketak zehatza behar du oso. Zehaztasun guztiarekin ere, kontrastea handiegia bada zerbait sakrifikatu beharko da derrigor: edo argialdea edo ilunaldea, baina biak ongi ateratzea ezinezkoa da.

Demagun mitxoleta gorri-ilun pare baten argazkia hartu nahi dugula, hegoaldeko argiak blaituriko gaztelu hondakin batzuen artean. Harriek islatzen duten argi zurizta gehiegizkoa da mitxoletak itzultzen digutenaren aldean; ezin izango ditugu, beraz, mitxoletak behar den bezala fotografiatu, inguruak islatzen duen argi distiratsu horri jaramonik egiteke. Eta harriak ongi geratzea nahi izanez gero, berriz, mitxoleten gorria ilunagotuko zaigu ezinbestez. Non eta ez diogun beste nolabait laguntzen.

Ostiral hartan elkar ikustekoak gintunan, elkarri bolada luze baterako agur esateko. Ez hintzen azaldu, ordea, eta eguna aurrera joan ahala ulertuz joan nindunan, aurretik banekinan baina, hirekin egon ezean ez nuela beste zereginik egun hartan euskaltegian, hangoak eginak nituela guztiak. Hi ikusi, hirekin egon, agur —musu bat emanez— esan, horixe zunan guztia. Ez hintzen azaldu, baina.

Asteburu osoa emango ninan gero zain, telefonoak noiz joko. Zenbat aldiz jaso ote nuen telefono madarikatua, larunbat hartan, hi hintzelakoan. Baina ez, bistan zegonan ez huela deitu ere egingo. Horrela hobe zunan, antza.

Azken ordura arte itxaron ninan. Begiak heze batzuetan, umorea gero eta gero eroriago. Ingurukoak ari zitunan nozitzen, oraingoan ere, gainbehera etorritako nire aldartea. Edozergatik piztuko ninan disputa, benetako arrazoa zein zen ongi jakinik oraingoan, aitortu gabe baina.

Eta, etsirik, telefonoa hartu ninan. Pentsatu gabe, garai batean oso gogoan baina azken aldi honetan gero eta ahaztuago nuen zenbakia markatu

ninan. Jo zinan behin, bitan, hirutan, ... ez, ez zirudinan inork erantzungo zuenik. Hartu huen, ordea, laugarren aldiz jotzerako, eta hire ahots goxoa entzun ninan hariaren beste aldetik, Bai, esan. Bihotzak jauzi txiki bat eman zidan, eta bizkorrago hasi zitzaidan taupaldia.

Ez ninan ezer aurpegiatu nahi, ez eta ahots tolesdurarik xeheenarekin ere. Ez nekinan, baina, sentitzen nuen min garratzak utziko ote zidan, telefonotik ere ahotsak saldu egiten gaitin eta; baina ahaleginduko nindunan, ezin bainuen areago hondatu hainbeste inporta zitzaidan harremana.

Elkarrizketa laburra baina leuna izan zunan. Zer nahi den ekartzea lurralde urrun hartatik, Neuk joan gura neuke, horixe gura neuke, Eramango haut nik, esan ninan eta hik barre, Bihotzeko txoko batean eramango haut, esan nahi izan ninan, Ea urruntzeak hurreratzen gaituen hurbilak urrundu gaituen bezala, baina, beste askotan bezala, barruan nuena motz kanporatuko zitzaidan orduan ere, eta hari madarikatuaren beste muturretik ezin ikusiko huen nire eskuak, bularreko ezker aldean pausatuz, aditzera eman nahi izandakoa.

Elkarrizketak lasaitu behintzat egin nindinan. Goibel baina adore handiagoz ekingo nionan orain bidaiari, egin beharrekoa egin nuelako ez ezik, hire hitzengatik. Bai, galdetu baihidan ea ostiralean joana nintzen euskaltegira, Barikuan ez nintzan joan —ederki asko nekinan, bai, ez hintzela agertu, hik esan gabe ere—. Esan baihidan deitzekoa hintzela, ez hekiela egun hartan edo biharamunean nintzen alde egitekoa, baina hots egiteko asmoa bahuela, ea harrapatzen nindunan etxetik irteterako. Ez ninan esan eskegiko nuela nahi baldin bahuen, heuk deitzeak egingo zidan ilusioa bizi ahal izateko besterik ez bazen. Baina nire barrua ukitu egin zitenan hire hitzek —horiexen premian egoki, nonbait—, neuk eskatu gabe etorriak zirela sentitu bainuen, hire gogoan tokitxoren bat oraindik banuelakoan edo. Erabateko ahanztura gogorra baita oso, errukia bera baino areago agian.

Hegazkinaren barruan motorren burrunba da entzungai bakarra, etengabe. Abiazio zibileko arauak gogorarazi dituzte jadanik: adierazi dute non diren larrialdi-irteerak; inork ez daki, ordea, premiatuz gero irtenbide lirakeen. Filmaren bat ere iragarria dute eta luzetsita daude dagoeneko bidaiariak. Azkeneko ilaran leihatila ondoan eserita doanak —elastiko beltza, irudi hori batzuekin— walkmana atera du motxila txikitik. Aireratu orduko ohartu da aldamenekoarekin —dotore jantzita, bere aldean— ez duela ezer asko izango hitz egiteko bidaia luzean zehar. Zinta bat jarri eta begiak itxi ditu. Mikel Markez ari da, oroitzapenak opari.

*Egindakoak eginda, esandakoak esanda,  
bizitakoak bizita, edandakoak edanda,  
nahiz eta amesgaizto bera inguratu sarri,  
ezin dira barneko grinak bihurtu harri.*

*Egindakoak eginda, esandakoak esanda,  
bizitakoak bizita, edandakoak edanda,  
nahiz eta ezin bizi zure gose ta egarri  
ezin zaio bihotz bati katerikan jarri.*

Oroitzapenak. Elkarrekin lanean ari ginela bazitunan urte batzuk. Ez gintunan, ez ezagun berri. Baina azken bolada hartan zuenera maizago joaten hasi gintunan. Heuk esaten hidan, askotan, ostiral arratsaldean, azaltzeko nahi baldin bagenuen larunbatean edo igandean, etxea izango zinetela. Eta sarri joango gintunan hiruzpalau hilabete hartan. Orduan hasi nindunan ohartzen bazela zerbait gure artean, lehen batek zekin zergatik lokaturik zegoen zerbait ari zela ernetzen bion artean, indar handiz ernetzen ere.

Lantokian elkarren bila ibiltzen ginela konturatzen hasi nindunan. Nahi ezta bezala, oso agerian utzi gabe, baina elkarren bila. Edozein aitzakia zela ona bata bestearengana joan eta berriketan jarduteko. Bizkaierazko aditzak edo nominalizazioak baino zer indartsuago batek elkarretaratzen gintunan inondik ere. Ziur nengonan heuk ere gustura hartzen nindunala hiregana joan eta, subjuntiboaren babesean izanik ere, hire mahaiaren aurrean beti egon ohi zen sillan jartzen nintzainanean, ez eta bai aritzeko gertu, zenbat eta luzeago hobe. Bileretan-eta ere, hiregana arteztuko nitinan begiak maiz, nahi gabe ere bai, eta maiz egingo zitenan topo hireekin, oso lipar labur batez, noski, barru-barruan gero eta seguruago genekienari uko egin nahian-edo luzatu gabe.

Hamaiketakoa elkarrekin hartzeko ohitura ere ordukoa dinagu: eskola amaiturik ia beti niregana etorriko hintzen, hire irriño hori ezpainetan, Kale izkinako tabernara joango, galdezka, eta ni beti zain egongo nintzainan. Asteartero, berriz, Gero hartuko dogu zerbait, zortzietan urtengo dot; ondotxo nekinan, bai, zortziak arte hituela eskolak astearte arratsaldeetan, baina askotan alde egingo ninan, ordu horretara arte hire zein egoteak zergatik jakin gabe horren nabari egin nahi ez nuen zerbait eginaraziko bailidan.

Piszinara elkarrekin joaten hasi gintunan, handik gutxira. Gogoan dinat oraindik, eta askotan aurkitzen dinat nire burua une hura birbizitzeko ahaleginetan, nola behin, igerian ibiltzera elkarrekin joatekoak ginen batean, deitu hidan esanez berandutu egin zitzaizkizala eta ezingo hintzela iritsi esandako orduan, ea inporta zitzaizkizala beranduxeago joaten baldin baginen. Nik ezetz, jakina, egongo nintzela hi etorri arte. Eta heldu hintzelarik, ni heuregana nindoala —euskaltegiko atarian zunan— nola hurbildu hintzaidan, irribarre zabal loratu berri eta aldi berean herabe bat ezpainetan, begiak nireetan tinko —begiek bat egiten duten horretan nekez esaten ditzen gezurrik—, eta nola inkontzienteki hire besoak gorputzetik libratu eta nireenganako bidea egiten hasi ziren, maitagarriro, besarkatzera bahentorkit bezala. Gorputzak mintzoak baino hobeto ematen ditin aditzera makina bat gauza, izan ere, eta aurpegia horrela argitzen denean, argitasun hori entzun ere egiten dela, gauza benetakoak adierazi behar ditin inondik ere; egoki interpretatzen asmatu behar! Igerilekuko aldi horietan deskubritu ninan nik, berriz, neuregan artean ezagun ez nuen zerbait, hire gorputz erantzia ikusitakoan txoraturik. Eta poztearekin batera beldurtzen hasi nindunan, sentitutako gorputz ikararekin ikaritzen. Gure artean behar adinako latituderik izango ez zen beldurrez edo.

Ikasturte berria hasi zelarik Aizkorrira joateko aspalditik buruan generabilen plan hura betetzea pentsatu geninan, gogoratzen haiz? Gu biok kotxean elkarrekin joateko ados jarri gintunan, euskaltegiko beste hiru lagunak beren aldetik joango zirela eta. Larunbatean abiatu, gaua tontorrean eman, eta hurrengo goizean gosalduta eta beheara etortzea zunan asmoa; euskaltegian izandako mendiko ikus-entzunezko baten ondoren okurritu zitzaizkizala ideia, bertatik ateratako argazki zoragarriak ikusi eta gero. Asteburua iritsitakoan,

ordea, eguraldia ez zetorrela oso segurua eta beste hirurek atzera egin zinaten. Hik, aldiz —halaxe espero ninan—, hots egin hidan esateko ea animatuko ginen, oso txarra ikusten bagenuen atzera etxeratuko ginela zapatuan bertan. Eta halaxe, abiatu egin gintunan, hire automobil zaharra hartuta Arantzazuraino. Larunbatean ez zunan oso giro ona, baina ateri iraun zinan eta aise ailegatu gintunan tontorreraino, Urbian hamaiketako hartuta. Iluntzerako argitzera zihoala ikusi eta geratzea erabaki geninan. Ez zebilenan inor. Ez zunan izan oso gau ederra, ostera lainotu egin baitzuen, eta egunsentia ere ez zunan izan ikus-entzunezko hartako argazkietakoa bezalakoa; lainoa sartu eta, goiz aldera, freskatu egin zinan dezente. Egunsenti hura, baina, nire gogoan geratu dun betiko, espero izandako argi-koloreak izan ez bazituen ere, lainoak eragindako hozkirri harexek elkarrenganatu egin baikintuen ezinbestean, eta geure zakuetan bata bestearen ondoan goxo egon gintunan, elkarren berotasuna gozatuz, eguna erabat zabaldu eta jaiki ginen arte. Pentsatu bezala, gosaldu eta behera abiatu gintunan, eta gogoratzen nauan zain ederra zegoen basoa Urbiatik Arantzazurako bidean, zeru estaliak udazkenaren gorri-horiak biziagotzen zituela, pago-haritzen hostoek beren adarretan zirautela artean, eta ez hik eta ez nik etxeratzeko inongo presarik ez genuela ikusita.

Ikasturtea aurrera samartua zunan, berriz, glotodidaktika ikastaroaren kontua sortu zenean. Nik joan beharra ninan, didaktika kontuetan-eta arduradun nenbilenez. Heu ere azkar asko azaldu hintzen joateko gertu, euskaltegitik bi lagun joatea erabaki genuenean. Ez dakin nolako poza sentitu nuen asteburua elkarrekin emateko aukera ustekabeko haren aurrean. Poza esatea ezer ez esatea dun, egia esan, sentitzen nuenak ez baitzidan lo egiten ere utzi aurreko egunetan, hain nenbilen aztoratua. Urteak zitunan-eta horrelako sentimendu bortitzik ez nuela neure baita sumatzen —hamar bat bai, sinesgaitza ez da?—, eta dagoeneko ez ninan uste halakorik berriro sortuko zitzaidanik ere. Nolatan etortzen ote da maitemina, uste ez dela, kasualitate hutsez, edo, aitzitik, ez ote da geure baitan aldeztu aurretik dagoen premiaren batek eraginda jaiotzen? Kontua dun heure ondoan, heurekin egoten nintzela ondo, beste inorekin bainoago, bolada hartan: hire kontuak aditu, hirekin barre egin, hirekin eman denbora. Hirekin egon nahi izaten ninan, besterik gabe; hire ondoan bilatzen zinan nire gogoak bestela faltan zuen alaitasuna, hirekin baino ez zinan, nonbait, hegan egiteko aukerarik sumatzen inguruan.

Eta ausartu egin nindunan, beldurrez pauso hura emateak nora eramán gintzakeen banekien arren, bidaia egun bat aurreratzea proposatzen. Hik, berriz, baietz, Joango gara eguen arratsean, eta barikuan mendira osteratxo bat, bale. Eta halaxe, ostegunarekin abiatu gintunan, iluntzeko autobusa Amaran hartuta. Aldizkari bat erosi huen —aitzakiaren bat behar?—, eta argazkigintzak elkartu gintunan bi ordu eskas iraun zuen bidaia zoragarri hartan. Hasieran, alderdi teknikoak izan genitinan hizketa gai. Aurrerago, ozta Nafarroan, errepidearen bihurriak ibilgailu orori balsa dantzazten dioneko ibai ertz hartan, nor bere barrua azalerago jarri behar izan zuen gaiak erabili genitinan, kazetako argazki ederren kalitateaz ez ezik, argazkilariak espresatu nahi izan zuenaz ere jardun geninan eta. Gogoratzen naun, nola, Mapplethorpe-ren argazki pare hura ikusita, egin genituen komentario gazi-gordin halere herabeak, edota, beste haien aurrean erosoago noski, nola aritu ginen erretratuetan begirada harrapatzeak duen garrantziaz, hik esan bezala, argazkiaren balioa, maiz, horrexetan baino ez dela-eta egoten. Azkenerako, nekeak hartu baikintuen —ondo erne geundenan baina, elkarren ondo-

ondoan—, burua buruari eman eta erdi lokartu egin gintunan, goxo-goxo, bata besteari erantsita, hire azalaren esne gozo usainak erotzen ninduela. Sekula amaitu izan ez balitz bidaia ahantzezin hura, nionan neure artean orduan, eta zionat orain ere, baina uste baino lehen Elizondoko lehen etxeetako argiek burua altxarazi zigutenan, berriro horrela egon nahi bagenuen ahalegin bat egin beharko genuela ulertaraziz. Gau hartan errioz bestaldeko ostatu txiki hartan afaldu —hik ajoarrieroa, nik txurita-beltza eskatu, baina, orduan askotan bezala, erdibana hartuz— eta lotara joan gintunan berehala.

Biharamuneko ostiral hura ez dinat sekula ahaztuko. Mendira gabe Bertizko lorategiak ikustera joan gintunan, hik ez hituela ezagutzen eta. Apiril bukaera zunan. Udaberria indartsu sumatzen zunan, aurreko hamabostaldiko euri zaparraden ondoan epel, eguzki printzek gure hezur-azalak berotzen zituelarik goxo. Hango landare eta zuhaitz exotikoak ikusteaz nekatu-edo ere egin gintunan, bertako txori kantuek —kukua ere han ari zunan dagoeneko— eta tokiak berak ere beste zerbait iradokitzen baitziguten inondik ere. Elkarren ondoan pasieran, besoa bizkarrean batzuetan; eguteren zeuden bankuetan erdi etzanda nire izterrak hiretzat buruko: esku hauek hire ilea maitekiro nahasten, aurpegia eta burua ferekatzen ausartzen zirela sinetsi ezinik. Zeruaren ederra zuhaitz adarren artetik, kanpo berpiztuaren usain goxoa, hire azalaren ukitu leuna sentitzen nitinan eta zoriontsu izan nindunan. Udaberri hasiera zunan.

Baina hire begiek nireekin topo egiten zutenero —eta egun gogoangarri hartan beste jomugarik ez zutela esango niken, nireek hireak bezalaxe, bestalde— zergatik ongi ez nekiela, ezin nionan eutsi begiratu goxo baina aldi berean jakin-nahizko hari —konplize, heuk gerora onartuko hidanez, hitz horrek dituzkeen konnotazio txarrak ez ahal hituen, behintzat, gogoan izango orduan!—, inoiz aitortu ez ninan beldur haren mende banengo bezala. Bai, zeren gure hartu-eman berrituaren hasi-masietan beldur bainintzen, horrelakoetan zer gertatzen ahal den bai baitakit ongi, eta, bietako bat, edo atzeraezinezko puntu batera edo izugarrizko nahigabea ekarriko zigun egoera batera eramango gintuen beldur nindunan. Eta defentsiban jokatu ninan aurrenetik, onartzen dinat, gureari ez nionan-eta aurrerabide handirik ikusten, debekatuaren bidetik sarturik gure bizitza eginen oinarriak astin zitzakeelako; gizarte inguruak galarazia ez ezik, geure buruek ere debekatuko ez ote ziguten susmo. Izan ere, berandu-edo iritsi baitzizaigun bizitzan elkarrekiko hura, irribarre batek, musu batek, goazemazu batek berak ere beldur pixka bat ematen duten tenorean iritsi ere.

Ez dinat jakin zergatik, baina izena elkarrekin emanak baginen ere ez gintunan logela berean tokatu barnetegian. Ostiral iluntzean beste tokietakoak ere hasi zitunan ailegatzen, tantaka bezala. Bistan zegonan biok bakarrik egoteko aukerak handik aurrera banakagoak izango zirela. Zuek diozuen bezala, artega nenbilenan oso, sumatzen bainuen dagoeneko neure barruko harra ez zegoela asetzerik hirekin egon ezean.

Afalondoan ibaiaz bestaldeko taberna hartara joan gintunan osterara, kafe ondoko patxarana hartzera. Ongi gogoan dinat, han ere nola egon ginen —baso bana eskuetan—, ingurukoez a t geure baitara bilduak bezala, hormaren kontra bermaturik besoa besoari, zegoen zarata gorabehera ahotsa altxatu gabe, aurpegiko keinuek eta, batez ere, begiradak —isiluneetan— eta tonuak komunikatzen zutena aski bagenu bezala. Ez zekinat nondik nora sortu zen, baina halako batean galdetu hidan, ziplo, Enamoratu zinan han urrutiko lur

hareetan, orain berriro zapaltzera noan Ameriketako lur horietan egon nintzen aurreko aldian ea maitemindu nintzen, alegia. Erantzuteko egon nindunan bailetz, orduantxe ari nintzela jabetzen hiru hilabete hartan hiri bidalitako eskutitz bakarrean aipatutako herrimin eta oroi-minekin batera, aipatu ez nuen beste min bat ere hasia zitzaidala zitzaka, ia oharkabea. Baina isilik geratu nindunan, hire soari luze eutsi ezinik orduan ere, ongi ulertzen ez nuen, edo nahi ez nuen, hura igartzen ninan-eta hire begi beltz ederretan. Oraindik orain egona naun berriz taberna hartan; barrenean zerbait iraultzen zitzaidala sumatu ninan, orduan egondako pareta alde hartan jarri eta hirekin egon nintzen aldian nire begiek ikusi gabe baina luze begiratu zuten koadroak hantxe segitzen zuela zintzilik ikusita.

Oherakoan ezin ninan gehiago. Hire begiradak niregan sortutako egonezinaren zergatia jakin beharra neukanan; bai eta elkarrekin egotea galarazten zigunik ba ote zen ere. Eta gizonezkoek balliatzen dituzten aitzakia horietako bat asmatu ninan gelara laguntzeko —liburu bat tarteko, eta gelan bakarrik hintzelakoa—. Bi ohatze zitunan, bata bestearen ondoan tarte handirik gabe paratuak. Sartu orduko asmatu huen heuk ere aldameneko gelara joan behar hura, ez zekinat zeren bila —senez hekien, inondik ere, zer zetorkigun— eta luze egon hintzen bertan mutil nafar harekin berriketan; ni, bitartean, erdi etzan egin nindunan oheetako batean, begiak sabaian iltzaturik, belarriak aldameneko gela hartatiko hotsei adi, buru-gogoak hiregan. Luzetsita, baina alde egiteko inongo asmorik gabe. Itzuli hintzen behingoan, eta atea itxi.

Bainugelatik irten hintzenez —oheko atorra zuri harekin eder, ile adats beltz dagoeneko luzatua libre bizkar gainetik—, ni nengoenaren ezker aldeko ohean etzan hintzen. Bai zatarra gela, ez da, hasi hintzen, zer esan ez hekiela, Gustura al hago, galdetu ninan, Bai, eta zeu, Ni ere bai, oso, nik motz. Baina ekin hion ondoren, eta azkenik hasi nindunan ulertzen egun osoan zehar hire begirasunean antzeman ezinik ibili nintzenaren nondik norakoa. Hire begiratuko baina hura hantxe baitzegoen, latz, ekin hionean azkeneko egunetan —edo orduetan— ongi hausnartutako guztiak botatzeari, presarik gabe, berba bakoitza esaterako maisuki neurtuz ahalik eta minik txikiena eman zezan, esan beharrekoak esanez halere, bihotzetik jaulkiagatik buruaren bahe hotzetik iragaziak.

Ez ninan hik baino hobeto asmatuko gure artekoaren zer-nolakoak azaltzen, elkarrenganako maitasuna hobeto deskribatzen —ez, ez huen hitz hori erabili, bazekinat kariñotik-eta galduta nola ibili ginen gau osoan, bakanegi erabiltzen dugun hitz horren itzuri, neuk maitasuna zer den ere ez nekiela esan eta gero—. Polita izan zunan hori hiri entzutea, baina nik momentu hartan alde batera nahi nuen bion egoera ere ekarri hidan gogora, lagunak, inguruaren trabak, hire mugak —nik ez bezala, garbi aski baiheukan muga horiek, gau hartan behintzat, bi ohe haien arteko tarte hotzean zeudela, nahiz eta hala onartu ez—, hire gogo-bihotzak bestetan hituelakoa. Hik emandakoaren ordain, berriz, niregandik ez-esanak baino ez hituen jaso, neure baldarrean isil-jarioa baino ez baitzitzaidan isuri hiregatik sentitzen nuenaren adierazgarri. Eta ilargirik gabeko gau hura aurrera joan ahala, arriskutsuki maitemintzen ari nintzela jabetzeaz batera bihotzari kateak ezarri behar zaizkiola ulertuz joan nindunan —beranduegi, baina.

Loturen beldur hintzen. Eta alde batetik arrazoi huen, bai, ederki ainguratuta geratu bainintzen, neu behintzat, hik luzatutako eskutik katigatuta, nora ezean eta beste heldulekurik gabe, ordea. Gure harreman kariñoso eta



polit hura —hire berbak ditun, betiko izango ditinat gogoan— ustelduko zen beldur hintzen, iritsi zen puntura iritsita aurrera urratsik eginez gero —aurrera baino ez zinan egiterik, baina—. Gau osoa elkarri oratuta, laztanka, besarkatuta igaroten badogu, xuxurlatu hidan, hori ere ezin politago adierazi hik, —imajinatzea bakarrik nola izan zitekeen, laztana!, eskerrak imajinatzeko behintzat libre garen—, Gero gehiago gurako dogu —edo dozu esan huen?—. Eta ondoren, bion egoera, mugak, Neuk ez dot gura, ez dot holakorik gura, oraingoz behintzat. Ez zekinat, horretan, aurrera eginez gero ustel zitekeelako horretan, arrazoa izango huen ala ez. Baina ez apuratu, ez dun ez ustelduko, umelxeago behar izaten din horretarako —barkatu, baina, umorez hartu behar genuela hioen, ez da?—. Beharrik amets egiteko, behintzat, mugarik ez dugun: gauzkoak ez ditun, ez, guk nahi bezain menderagarri; egunez, ordea, nork galaraziko digu nahi dugun bideetatik galtzea, iritsi ezin ditugun jomuga zoragarrietan barrena atsegin bila, ihesean bada ere, ibiltzea?

Ez al da absurdua gure artekoaren politasuna izatea —politasun huraxe hondatu nahi ez izana— hire ezezkoaren arrazoa? Eta, usteldu ez bada ere, ez ote da dagoeneko erabat ihartu, maitea, nola sustrai handirik egiteko betarik utzi ez zaion landarea? Saiatu naun ulertzen, sinistuidan, baina ezin izan dinat. Loturen kontu horretan oker hengoela esango niken, gainera. Gau hartan batera edo bestera jokatu izanak ez zinan inola ere loturen estutasuna erabakiko. Ez, maitea —horrela deitzeko ere ez dinat egundo bihotzik izan—, kateak geure buruan baino ez baitaude, eta, gorputzez hurreago edo aparteago egoteak, musuak ezpainetan segundo erdi bat iraun edo, luzeago jota, hezexeago izateak, horrek ez din baldintzatzen gerora sor litezkeenen izaera, baldintzatzen ez duenez. Bitxia dun, gero, amodioa: beste batzuetan hirekin baino aurrerago-edo iritsita ere, ez zaidan aparteko loturarik sortu; hirekin berriz, hementxe nabilen askatu ezinean, eginahalak eginagatik. Zergatik ote da horren zaila hain gutxi ezagututako pertsona bat maitatzeari uztea?

Aise eman hidan eskua, kateen beldur hintzen horrek —nik hala eskatuta, hori ere halaxe dun— gauaren luzeak unaturik lotarako prestatu ginean. Eskua emango didan, konturatzen al haiz ez degula berriz sekula horrela egoterik izango, nik etsian, Segurutik ez, hik auskalo nola —jakin nahi niken nik adinako sastakoa hartu ote huen bai soila behar zuen seguru-asko-ez latz hura botatakoan—. Ez dakin, noski, baina loak hartu eta ordu betera-edo esnatu hintzenez —eguna argitzen hasia zinan ordurako, ilusioa itzaltzen—, hire eskuak hantxe ziraunan libre artean, mugen gainetik eskainia nire ohe gainean, neurea baitzen, goizaldeko —edo bihotzeko— hozkirriak eraginda nonbait, erretiratua bide zena lo hartutakoan. Leihotik sartzen zen estreinako argi motelak hire aurpegi nekatua erakusten zidan, nare. Hi akordatu gabe musuan musu emateko gogoia izan ninan, baina hire esku epelari atzera heldu eta lo hartzen saiatu nindunan. Goizean —orduan ere ez nindunan ausartu laztanez iratzartzera— nire aurrean jantzten ari hintzela —alkandora zuria artean lotzeke— egiaztatu ahal izan ninan berriro hire gorputzaren ederra, gau hartan ukatu zitzaidan gorputz horren edertasun zirrargarria. Eta gero, egunon musua elkarri eman genionean samur, estreinakoa eta azkena izango zen ziurtasunak hartu nindinan. Bizitzan gauza guztiek zeukaten beren hasiera eta beren amaiera, eta, logela itsusi hartatik irten ginelarik, zerbait, nola izendatu ere ez nekiena, bukatzen zelako ziurtasun etsigarria izan ninan.

Ikastaro hartan zer gai erabili ziren ere ez naun ia oroitzen. Ez zekinat han egon nintzela esaterik ere badagoen, izan ere fisikoki egoteak ez baitu maiz ezer askorik esan nahi izaten. Asteburu hura joan zunan eta Donostiara itzuli gintunan igande arratsaldean, nor bere txokora, nor bere ingurura.

-II-

Flasha kameraren obturadoreko etengailu baten bitartez aktibatzen da, eta hala lortzen da obturadorearen irekitzea flasharen argialdiarekin sinkronizatzea. Beraz, flasha erabiltzean gogoratu behar den aurreneko gauza, eta funtsezkoa, da bere abiadura kameraren obturazio-abiadurarekin sinkronizatu beharra dagoela. Hori egin ezean, eszena batere argitu gabe edo, onenean, partez soilik argiturik geratzeko arriskua baitago, diafragma zabalik egon den denbora-tartea eta flasharen argiztapenak iraun duena bat etorri ez direlako.

Soka gehiegi tiratzeak etena ekartzen din ondorio. Eta etena benetan latza izan zunan, niretzat behintzat. Gero eta gutxiago elkar ikusten hasi gintunan: zuenera dezente bakanago joaten, batere ez, esateko; berdin zuek ere gurera. Lanean toki berean jarduten genuenik ere ez zinan ematen, hantxe ari gintunan elkarrenganako arrotzen. Elkarrekin geundela ere, hitz-beste egiten hidan maiz nik gaia aterako nuela sumatu orduko. Inoiz erakarri gintuzten indar eta magia haiek ezkutatu egin zitunan —edo ezkutarazi egin genitinan— betiko. Gure bizitzen bideak bat egitera sekula iritsi ez zirelarik, elkarren ondoan egin zuten aldi labur haren ondoren hireak batera jo zuen bezala —artez, heuk nahi aldera— nireak bestera egin zinan, maldan behera amilka gainera. Tristurarik sakonenean murgilduta ikusi ninan neure burua, bihotz maitez minduaren etsi ezinaz.

Bai, gauzak askoz argiago hituen, eta ez zirudinan gertatutakoak oso hunkitu hinduenik —barkatuko didan, baina horrela sentitzen ninan, eta bazekinat zein zaila den bestearen lekuan jartzea—. Ni, berriz, izan zitekeena baina izan eta izango ez zenaren etsi gaiztoak hartu nindinan. Neu ere ez nengoela harremanera erabat emateko prest, hala aitortu ninan behintzat, esan hidanean ez huela ikusten ez heu eta ez ni ez geundela elkarrenganako itsuturik. Ez, zalantza handiak nitinan, egia dun. Orain, ongi pentsatuta, zer dela-eta ez ote diot galdetu nahi neure buruari zergatik ez nengoen hartarako prest, zergatik hainbeste zalantza: ez ote erantzuna gustuko izango ez dudalako? Hobe aztarrik ez egitea hortik, batek zekin-eta zer aurkituko dudan. Mediokritatea baino ez, seguruenik, bihotzak erakutsitako bidezidor zalantzazko eta ezezagunari ekin baino nahiago izaten baitugu, gehienetan, errepide artez eta seguruari heldu eta bertatik segi. Tamarorena erruz ari omen dun saltzen Europa bihozgabetu horretan —honetan?—. Badakin zergatik "Va dove ti porta il cuore", alegia, segi bihotzak zaramatzan bidetik, halaxe din izenburua, eta, hain zuzen ere, horixe dun askok falta duguna, bihotzak garamazkeen horretarantz abiatzeko ausardia. Horrexegatik salduko dun, noski, horren ongi: ez ote dugu, bada, liburuetan-eta bilatzen bestela ez dugun hori? Mediokreok.

Nik ez zekinat zer den maitasuna. Maitemindurik egotea, ordea, ondo zekinat zer den, ondo zekinat zein mingarri izan daitekeen, aspaldi neure baitan

sentitu gabeko zer horrek berriro ere sastatu didanetik ederki asko egiaztatu ahal izan dudan bezala. Desira, berriz, Elizondoko gau hartan bezain bortitza, edo areagokoa agian, Hondarribian ibili ginenekoa geratu zaidan itsatsita. Ikasturte bukaerako afaria zunan, uda berriko gau zoragarria, eta afalondoan itsasoan bainatzera joatea pentsatu geninan. Taldeko guztiak ez zitunan uretan sartu, mordoxka bai ordea. Ordurako niregandik aparten samar ibiltzen hasia hintzen eta, ilargi gaua bazen ere, ezin izan ninan hire gorputz biluziaren ikuskariarekin gozatzerik izan. Gero, baina, ohiko ibilaldiari egin genionan, tabernarik taberna, zerbezak eta bestelakoak aise husten genituela. Eta pub horietako batean han hasi zineten dantzan, ni bazterrean geratzen nintzela: hi erdi-erdian, ilea artean bustia ere dantzari sorbalda gaineretik, besagain leun eta biribil horiek agerian, soineko laburra itsatsi-itsatsi eginda, gorputza libre halere haren azpian. Ezin ninan begirik gaineretik kendu, eta, eraman ezinik —hiregana jo eta, zeuden guztien aurrean, lepotik besarkatzeko gogo eutsigaitzari eutsi ezinda, gizarte honen bibitako egituratze murriz eta tankera bakarrekook galarazten bazigun ere maite hindudala mundu osoari aldarrika hasiko ez banintzen— kanpora irten nindunan hautsita. Orduantxe jabetu nindunan betean hik gure artekoaren desegokitasuna aipatzen hidanean esan nahi huenaz. Desegokitasun ederragorik, ordea!

Negutik negura, udakorik gabe. Horrelaxe joan zitzaidanan urtea, neure buruan beste ezer ez nerabilela. Ilunik ilunenean, tunel muturreko argirik hautematen ez nuela. Berba goxo bat eta maite-maite bat bera ere gabe. Zorionsu itxurako beste batzuk ikusita bekaizti, hirekin inoiz egondako toki-egoeretara itzuli ezinik oroitzapenaren bortitzak galarazita. Lehortea latza hire ihintz tantarik gabe.

Gauza bat dinat eskertzeko, eta ironiarik gabe gainera. Hiri eskerrak ikasi dinat eta, beste gauza anitzen artean, negar egiteko gaitasuna ez dudala galdua, hala uste banuen ere. Urteak ditun, ez huke agian sinetsiko baina, ez nuela nik malkorik isurtzen ez ezerगतik ez inorengatik. Eskolan-eta, ez ote ziguten bada geuri ere negarrari eusten erakutsi? Gauza ote nintzen ere duda egiten ninan batzuetan. Banaun, baina, eta hiri eskerrak jakin dinat. Batzuetan, negarrik egin ezean, hil egingo ginatkeela iruditzen zaidan orain. Zenbat aldiz, maitea, niretzat hintzen lagun mina galdu izana eraman ezinean, busti dudan ohe-burukoa, lo gabeko gau luzeetan bakarrik —eta zenbat gau, sasoi hartan eta oraindik orain, begirik bildu ezinik hi gogoan hartuta— aldamenekoaren loa asalatzeko adorerik eta eskubiderik gabe. Malkoak begitik irten eta aurpegian behera nola labaintzen diren sentituz, jakinik eztarriko korapiloa ez dela askatuko anpuluari irtenbiderik zabaldu ezean. Oraindik ere, hirekin akordatzen naizen bakoitzean, ez dakin nolako ito beharra jartzen zaidan, eztarrira nahi lukeen olatu batek eraginda bezala begi ertzetik kanpora nahi duen malkoari eutsi ezinik.

Irakurketa izan ninan ihesbide momenturik latzenetan. Zinea ere bai —ezingo huke imajinatu ere egin zer-nolako pelikulak hasi zitzaizkidan interesatzen, lotsa pixka bat ere emango lidaken ametitzeak—eta estreinako aldiz egiaztatu ninan zenbaterainoko ahalmena duten liburu eta film batzuek zenbait egoeratan gu hunkitzeko, malkoak isurarazteraino hunkitzeko. Idazten hastea ere pentsatu ninan, eta makina bat aldiz bai paper aurrean jarri ere, luma eskuan, bestela adierazkaitz nituen guztiak botatzeko irrikaz eta ezinean —barrenekoak adierazteko orduan motzak gaitun, batzuk behintzat—; hainbat aldiz bota behar izan nitinan, ordea, zirriborratutako paperak zaborrontzira,

estreinako lerroa ere artean amaitzeke —orri zuriaren aurreko larri topikoak baino ezer izkiriaturik leukakeenarenenekoak ikaratzen baininduen ni, inork irakurrita emango zidakeen lotsa imajinatze hutsak.

lhesbide horiek guztiek, ordea, huts egin zidatenan luzera. Hirekin topo egiten nuen bakoitzean sentitutako nahigabe-oinazeek sorgarri indartsuagoa behar zitenan, nonbait. Denboraren eta urrunaren ukenduak sendatzen omen ditin zauriak, baina nagon ez ote diren lur azpian luze dirauten su gotor itzalgaitzak ere, gainera azaltzea galarazten zaielarik ez sumatuagatik, beren gotortasunean amore ematen ez duten amodioak.

Izugarrizko ekaitza ari du kanpoan, motorren burrunba kanpoko trumoi hotsarekin nahasian entzuten baita orain. Hegazkina hodeitik hodeira jauzika doala esango litzateke, nahiz eta, ilundu duenez, leihatilatik ezinezkoa den beltzik beltzena baino sumatu. Iluntasun horren azpian, bederatzi mila metrotara edo, itsaso zabala, beltz. Elastiko beltzeko bidaiariak —Hau nazka, Mecagüen el V Centenario— irriño triste bat itzuli dio ikara disimulatzearren irribarre behartua ateratzen dion aldamenekoari. Nora doan galdetuko liokeela pentsatu du, baina, zertarako galdetu, bera bezalaxe Guatemalara doala argi dago eta.

***Egindakoak eginda, esandakoak esanda,  
bizitakoak bizita, edandakoak edanda,  
nahiz ta nire suak ez duen ya sortzen kerik,  
geroztiko bakardadean ez dut bakerik.***

Hirekin zerbait konpartitu arteko onik ez ninan izaten: uneak, barreak, kafea besterik ezean. Horrekin pozik etxeratuko nindunan, onartzeak berak ere lotsa apur bat sentiarazten badit ere. Baina hori ere ez zunan gertatzen, ez nik nahi bezala behintzat. Konpartitu pozak konpartitzen omen ditun, nahigabean lagun izatea ez dun horren erraza, bazekinat, eta agian horrexetan egongo zunan nahi-ezin horien arrazoia.

Itxaron beharko dozu, Oraingo, behintzat, ez, beti ere biok hutsala zena ongi genekien esperantza apurra apurtzeke: halako erantzunak jasotzen nitinan hiregandik —ez ote zen bera gogorrago, erabateko ezetza baino?—. Lehen bezalaxe lagun onak izan gintezkeela hioen, baina bistan zegonan ezetz, ia ez baikinen elkarrekin egoten ere. Gauzak okertuz joan zitunan nabarmen, ni lehenaz eta orainaz mintzaten nintzainan beti, zegoen alde ikaragarri eta niretzat jasanezinaz. Ez egizu iraganaz jardun, ez da ezer aldatu gure artean, hik. Nola ez zen, ba, aldatuko, Lehen, guka ere maiz egiten huen, orain apenas. Lehen ez bezala, inork ez zidan gehiago galdetuko hire kontuez —hire ama gaixorik ospitalean egon zen hartan bezala, zenbat lankide ez ote zitzaidan etorri zerbait jakingo nuelakoan—, inor ez zitzaidan gehiago etorriko, hi lanetik azaldu ez eta, hire berririk ba ote nekien galdezka.

Gerora aitortu hidan, bai, itzuri ibiltzen hintzaidala, nirekin sarriegi egote hutsak berak gurea hik nahi ez huen bidetik eraman zezakeelakoan edo. Barkatuko ahal hizkidan nire orduko zaputzak, barkatuko ahal hidan aldi horretan gogaikarri samar agertu baldin banintzainan, baina, beste zer ote dago, ezpada izena aipatzeak berak izutzen gaituen sentimendu horren ziurra,

alamena emateraino, erreguraino iristea justifika dezakeenik? Elizondoko hartan arbuio gisa bizi izandakoa —eskua baino ez emate hura— ez zekinat sinetsiko hukeen, baina gerora, azken urteetan izan dudana bizipenik politenetakoa bilakatu dun niretzat. Zer ez ote nuke emango halako beste gau baten alde, hire ondoan goxo hire besoetan izan gabe ere, samurtasunez betetako hitz leunak emeki esan eta entzunez, besterik gabe, hirekin egon ahal izateagatik? Zer ez ote nuke emango, bestalde, gure artekoa hire ahotik entzun ahal izateagatik, neuri baino hobe, gainera, beste inori —trabarik gabe— kontatzen aditzeagatik?

Tratuarena etorri zunan ondoren, poetaren tratu ederraren proposamena. Nire burua eskainiz, nirekin kontatzen ahal huela eman ninan aditzera, baina, tratua tratu, hire aldetik ere kideko ordaina eskatuz —zer ote zen hiregan sumatu uste izan nuen enbarazua, erantzuna eskatu eta, hire baiezko behartu hark argitu zidanean hitzen esanahia ez genuela, akaso, berdin ulertzen?—. Ez dinat uste asmatu genuenik horretan ere. Beharbada, ni neu ez nintzelako tratu horren funtsaz beraz behar bezala jabetu, eta biraino ez ezik bosterraino edo hamarreraino kontatu nahi izaten nuelako hirekin. Heure aldetik, berriz, hori dun behintzat nik sentitu dudana, asmatu ez huelako nire begietako maitasun izpiek hiregan altzarazitako arma eraisten. Eta arrazoirik gabe muzin aurkituko nindunan maiz, nik nahi ezta ere.

Eta halaxe, gero eta motzago ezer azaltzeko, sentitzen nuena poliki-poliki gordez joan nindunan berriro, nire denbora guztian egin dudana legez, eta neure burua ezer adierazteko debekatua zegoela erabaki ninan —aitzakia polita dela esango dun, beharbada, baina halaxe sentitzen nindunan, barruan nuena kanporatzeko debekatua bezala—. Inoiz zerbait esateko asmotan hireganatuko nindunan, eta hobeto pentsatu eta isildu ere bai maiz; edo, hori gabe, hik hire irribarre batekin erabat desarmatuta utzi ere aise egingo nindunan, errukizko ñabardurarik sumatzen ez nionetan behintzat.

Esango litzateke ekaitza baretzera doala Atlantiko gainean, berriro ere motorren burrunba nagusitu baitzaio kanpoko trumoi hots orain urrunagoari.

Zoriontsu izateko diozu  
eta zuk opa izanak halaxe egin nau  
aldi jori laburrez.

Agurrarekin bat, berriz,  
hor dira, gogor,  
iragarritako negar bortitz malkorik gabeak

Maitatu ezin omen nauzun horrek.  
Maitatzen uzten ez didazun horrek.  
Ahantziriko negarra ekarri didazun horrek.

Utzidazu,  
hobe beharrez, omen, ezarritako lehorte garratz hau

malkoz bustitzen, isilik.

Utzidazu, arren,  
bederen,  
triste egoten.

-III-

Zuzeneko argiztatzeak kontrastea hobetzen laguntzen du. Kontraste gehiegiak, ordea, esposizio-neurketa zehatzak zaildu egiten ditu eta eragin ditzake irudi-xehetasunen galtzeak argietan zein itzal aldeetan.

Bete-flasha esaten zaio flash-argia parte ilunak argiztatzeko betegarri gisa erabiltzen den teknikari. Teknika horrekin flasha egun-argia delarik ere erabiltzen ahal da —argi-kontrara egindako argazkietan eskuarki—, irudiko ilunaldearen argi eskasa osatzeko.

Mitxoleta gorri-ilun pare bat hegoaldeko argiak blaituriko horma baten aurrean fotografiatu nahi baldin bada, esaterako, bete-flasha erabiliz egokiago egiten ahal da: hormak islatzen duen argi zurizta neurtu eta hari egokitu esposizioa, mitxoletetik itzultzen diguten argi eskasari flash-argiarekin lagunduz. Beti ere flasharen sinkronizazio-abiadura behar den bezala ezarriz, jakina.

Euskaltegiko kontuek aspaldian gehiegi motibatzen ez baninduten, are gutxiago orduan. Lanerako batere afanik ez, ikasleen hutsegiteek bezala lankideen hamaika koita zentzugabek ere gogaituta nindukatenan aspaldi. Kemengabeturik nengonan erabat, lanerako eta bestetarako.

Alditxartuta maiz, gertatutakoak utzitako gazi-geza berritzen zitzaidanan ikusten hindudan bakoitzean —baina okerrago zunan, ez dezanala pentsa, hi ikusi gabe egin batzuk joaten zirenean—. Jakingo bahu zer gutxirekin etsitzen nuen: irribarre bat, edozein galdera, denik eta txoroena ere; zerbaitetan laguntzeko eskatuz gero, berriz, hura zerua zunan niretzat, hirekin egoteko aukera zen neurrian. Bost minutu, hamar, ... aski ninan: egunak ia mila eta bostehun zeuzkan! Baina ez, heuk garbi huen, agi danean, eta dena errotik —edo ia— moztea erabaki huen, horrela hobe izango genuelakoan —guka egin huen orduan, bejondeinala; ez zekinat, baina, gu horretantxe bentajarik batere ba ote nuen nik! Izan ere, norberarentzat zer den on jakitea gaitza baldin bada maiz, are zailago besteari zer komeni zaion asmatzea.

Irakurri al dun "El arte de amargarse la vida"? Hasterako sumatzen ninan horretan maisu behar nuela. Duela hilabete elkarrekin bazkaltzen izan gineneko hartan bezala, juxtu entzun nahi ez nuena entzuteko artea ez ninan, bada, egin, hirekin azken bazkalondo triste hartan, geroago eta gutxiago egoten ginela batera, eta ea pena ematen ote ninan-edo tematu nintzelarik —hi haserretzeraino, tematu ere— azkenean nahi ez nuen huraxe entzuteko, horrela segituz gero, gaizkika-eta beti, hobe izango genuela elkar ez ikustea gehiago —heu sumatu hindudan, orduan, begiak apal, nire begirasun hitsari eutsi ezinda

bezala; hobe dun bai, nire begietara ez begiratzea, gainean dudan tristura hau erantsiko baitinat, eta ez dun batere ona—. Ba bai, maisu naun nahi ez dudana eragite horretan: liburuan ederki dioen bezala, "esadazu zeren beldur zaren eta esango dizut nola probokatzen duzun". Eta hirekiko guztian, azken boladan behintzat, eta Elizondoko gau hartakotik bertatik hasita, ez ote naiz bada aritu juxtu nahi ez nuen huraxe eragiten?

Oker ibili naun. Hiri ikasia dinat, berandutxo bada ere, bizitzan inportanteena besteekiko harremanak direla, eta harreman horiei, ihartuko ez badira, kontu egin behar zaiela. Ederki gauden, neska! Zoriontasuna, berriz, nork bere buruari mugak ipintzen jakitean omen zegon, hala entzun dinat. Bistan zegon horretan ere ez dudala asmatu, ez hireak non ziren ulertzen, ez eta —eta hauxe garrantzitsuena, noski— neureari beharrezkoak jartzen ere. Dena den, eta aurreko horrekin kontraesanean zirudin, bazekinat, baina sinetsita nagon mugak gainditzen ahalegintzea bera ez ote den bide bakarra denok amesten dugun zoriontasun horren bila ekiteko: ahaleginak, behintzat, saiatze hutsak, ematen din halako gogobetetasun bat, jomuga iritsi ezik ere nor bere buruarekin, aurrera begira ere bidean, kontent egoteko arrazoi bat bederen; etsitzeak, aldiz, bide bazterretik atzera begira geratzeak, ez din deus ematen, ez bada honako hustasun hits eta antzu hau.

Hegazkineko leihatilara erreparatu eta barruko argi-itzalen isla baino zerbait gehiago sumatzen da dagoeneko, aurki urratuko duen egunsentiaren gorria ari baitzaio gailentzen gau joan berriaren ilunari. Lainaje itsusia ikusten ahal da oraindik, hala ere, iragan berri den ekaitzaren hondar. Bederatzi mila metro beherago, Karibea utzi eta inon den lehorrik hezeenetako batera iragaten ari direla iruditzen zaio walkmanaren entzungailuak oraindik belarrietan dituen bidaiariari. Ordu erdi barru-edo Guatemala Hiriko La Aurora aireportuan lur hartzera doazela iragarri dute oraintxe hegazkineko bozgorailuetatik.

*Zoaz bada  
etorritako bidexidorretik,  
atera sartutako atetik,  
zoaz bada  
ta deskuidoan behar banauzu  
giltza non dagoen badakizu.*

*Egindakoak eginda, esandakoak esanda,  
bizitakoak bizita, edandakoak edanda,  
nahiz ta ezin dudan uxatu zure mamurik  
berriz berdin egingo nuke, ez dut damurik.*

Aireportukoak egin eta hiribururako kamioneta zaharren bat hartzea izango du onena, badakigu-eta taxistek zer nahi izaten duten etorri berria galdu samar dabilela usnatutakoan. Aireportukoa utzi eta Mexikoko mugaraino eramango duen beste kamioneta bat —nola edo halako autobusa— beharko

du. Aldamenekoa hitz egiteko gogoz sumatu eta lo itxura egin du, Mikel Markezek oroitzapenak erregalatzen segitzen duen bitartean.

Esango lioke aldamenekoari —aurreko egunetan hainbati esan dion bezain harro-edo, gainera— nola etorria den berriro Guatemalara Mexikotik itzultzekoak diren errefuxiatuei laguntzera, beren herrira itzullitakoan ahalik eta arazo gutxien izan dezaten, egoera oraindik ere arriskutsua dela, eta laguntzera etorritako atzerritarrak biziki ongi hartzen dituztela. Esango lioke, baten batekin hitz egiteagatik besterik ez bada ere —osasunerako ere ezin baita ona izan denbora guztian nor bere baitan bildua egotea, jan ezinak janez—, nola kamioneta zahar bat hartu eta, triki-traka, Mexikoko muga dagoen La Mesilla-raino joan behar duen orain Huehuetenangoan barrena, hamar ordutik gora iraungo duen bidaiaria nekagarrian, eta han elkartuko dela Euskal Herritik eta hainbat lekutatik etorritako beste brigadista internazionalista batzuekin, Mexikotik iristekoa den guatemalar errefuxiatuen zutabeari abegi egin eta Guatemalako partean paratuko duen kanpamentuan laguntza ematera. Esango lioke, agian, ez balitz dotoreegi jantzita doalako eta, seguruenik, ulertu ere ez liokeelako egingo, nola munduko txiroekiko elkartasuna bideratzeko modu bat den hori, sakrifiziorik eskatzen duena, bai, baina bizi pozik ere eskaintzen ahal duena. Esango lioke, bai, baina ez dio deus esango, izan ere, nahiz eta sinetsita egon elkartasun bide hori —dena utzi eta besterentzako lanean aurkitu nork bere gogobetegarria— bide egokia dela, oso ongi baitaki bera, une honetan, gezur batean bizi dela —ihesa, finean, gezurra baita— eta gezurrak igarri egiten dira.

Leihatilatik erreparatu du berriz eta La Aurorako pista bustia ikusi du behean, goiz-argien islagarri. Eguzki gorri galanta ikusten da dagoeneko urrutira. Hegazkinak azkeneko bira egin du lurreratu baino lehen. Minutu batzuk barru, dena geldi dago eta motorrek bakea ematen dute, isilik. Bidaiariak hasi dira eserlekuetatik beren hezur-gihar gogortuak mugitzen. Elastiko beltzeko bidaiariak, bere puskak hartu eta, presaka bezala, aurrera egin du eserleku arteko korridoretik. Hamar ordu luzeetan lagun izan duenak hots egin dio atzetik:

—Eh, señora, se olvida usted la cámara.